



**ABALTZISKETA**

## LURSAILEEN DIGITALIZAZIO LANAK

Zenbait herritarrek beren partzelen fitxak jasoak dituzte eta zenbaitek zelaieatara joan eta lanak ere burutu dituzue.

Lan hau denontzako berria da eta akatsak ere nabaritu ditugu mugetan, eta zuzenketak egiten saiatu gara.

Horregatik, honako hau adierazi nahi dizuegu:

1. Lehen fitxak jaso dituzuenak, fitxa horiei laguntzeko, partzela bakoitzeko partzelaren argazkia emango dizuegula.
2. Bide batez, zenbait fitxetan zeuden muga akatsak ere zuzenduak daudenez, argazkia jasotzearekin batera zuzendu ditugunak emango dizkizuegu.
3. Fitxak jaso gabe dituzuenoi berriz, ahal duzuenean, fitxak eta argazkiak jasotzea etortzeko esan nahi zaizue.

Hala eta guztiz ere, egon daitezkeen akatsak lursailera joaten zaretenean zuzentzekoak izango dira. Gaur egun daukagun argazkietan, zenbait erreka eta lurrezko bideak ez bait dira nabarmentzen, eta mugakidea ez da ondo adierazten.

Beraz, lehendabizi barkamena eskatu, egin diren akatsagatik, eta egingo direnagatik.

Baino, zuen laguntzarekin ahaleginak eginez, landa partzelen digitalizazioa egitea lortzen badugu, hurrengo gizaldietarako lan baliagarria izango da.

Animatu eta nahi duzuenean udal bulegoetatik pasa, dokumentazioa jasotzera.

Abaltzisketan, 2022ko otsailaren 4an.

Udalak